# Fadoaren erreginak jadanik ez du gehiago kantatuko

## *Amalia Rodrigues abeslari portugaldarra zendu zen atzo*

Agentziak / **Lisboa**

**Amalia Rodrigues fado tradizionaleko kantari handiena, *Portugalen ahotsa*, atzo zendu zen Lisboan, bere etxean, 79 urte zituela. Portugalgo kantari unibertsalenaren heriotzak atsekabe handia sortu du bere herrian, eta lehen ministro Antonio Gutierresek berak hiru eguneko lutualdi nazionala agindu du. «Badira herri baten ikur diren figurak, eta Amalia Rodrigues historian sartuko da Portugalgo herriaren ikur bikainetako baten gisa», esan zuen Antonio Gutierresek.**

AMALIA RODRIGUESEN idazkari Leonide de Jesus Henriques-ek aurkitu zuen atzo *Portugalen ahotsa* hilik, Lisboan daukan etxean, bere gelan. Asteartean, Amalia Rodrigues «dagoeneko ondoezik zegoen», idazkariak berak atzo esan zuenez, baina gaixotasunik ez omen zuen, Leonide de Jesus Henriquesen beraren hitzetan.

Kantariaren gorpua bere etxean izan zen atzo goizean, eta arratsaldean eraman zuten Lisboako Estrela Basilikara, eta hor egingo diote azken agurra *Portugalen ahotsa*-ri.



EFE

**Amalia Rodrigues, kantaldi batean.**

### Berehala lortu zuen ospea

Amalia da Piedade Rodrigues 1920ko uztailaren 23an jaio zen, eta oso gazte zela hasi zen fadoak kantatzen jendaurrean, bere ahizparekin Lisboako portuan limoiak saltzen zituen bitartean, eta 19 urte zituela aritu zen lehen aldiz kantari profesional gisa Retiro de Severa fado aretoan.

Garai hartan, fadoa ez zegoen ondo ikusia, tangoarekin gertatu zen bezala, izan ere, behe mailako jendearen jardun gisa hartu ohi zuten fadoa. Hala ere, Amaliak berehala lortu zuen ospea *Coimbra, Lisboa antigua, Barco negro* eta beste hainbat kanturekin. Hala, Portugalen eta beste hainbat herritan ezaguna egin zen, eta bere ahotsa eta kantatzeko moduarengatik *fadoaren erregina* bihurtu zen. Beltzez jantzita kantatu ohi zuen, eta fado kantariak ere beltzez jantzita kantatzen hasi ziren.

60ko hamarkadan, Europan eta Amerikan zehar aritu zen *fadoaren erregina*, hainbat disko grabatu zituen, opereta emanaldiak egin, eta *Fado, Vendaval, Sangre y toros, Capas negras* eta beste hainbat filmetan parte hartu zuen.

Antonio Oliveira Salazaren diktadurarekin bat egin zuen, urte askotan, eta, 1995ean, Mario Soares lehendakari sozialista ohiak domina bat eman zion. «Edozein kontu politiko gainditzen duen figura bat da», esan zuen Soaresek berak Amalia Rodriguesen gainean. «Portugesen sinbolo bihurtu zen».

Salazarren diktadurarekin bat egiteak kritika ugari ekarri zizkion Amalia Rodriguesi, eta diktadorearen babesa izateaz gain, polizia politikoari lagundu izana aurpegiratu zioten. Gero eta kritika gehiago jaso, eta denbora batez erretiratu egin zen *fadoaren erregina*.

1976an kantaldi bat eman, eta diktadurarekin bat zetorrela ukatu zion prentsari, eta fado kantaria besterik ez zela azpimarratu zuen. 1988an, Amaliak 68 urte bete zituen Lisboan, 20.000 pertsona baino gehiagoren aurrean eman zuen kantaldian

Portugalen ahotsak sari ugari lortu zituen bere ibilbidean zehar, eta bi aldiz ezkondu zen.

# Piztiak: «'Zero' diskoa irekiagoa da, koloretsua»

## *Aurkezpena gaur da, Bilboko Kafe Antzokian*

Montse Arregi / **Bilbo**

PIZTIAK taldearen laugarren diskoa da *Zero*, eta gaur zuzenean aurkeztuko dute Bilboko Kafe Antzokian. Doinu aldetik aurrekoak baino «irekiagoa eta koloretsuagoa» da, eta hitzei dagokienez, kanta bakoitza ipuin labur bat da, «hutsunearen gaia ardatz hartuta ahots ezberdinen ikuspuntuak eta istorioak kontatzen dituztelarik».

Gaztelupeko Hotsak zigiluaren eskutik kaleratu dute bizkaitarrek *Zero* «erdi disko erdi liburua». Hitzaurrea Jon Maiak idatzi du. Josu Aranbarri eta Txomin Uribe taldekideek Kirmen Uribe hitzen egilea izan zuten lagun atzo Bilbon egindako prentsaurrekoan.

> **KIRMEN URIBE**
> **Hitzak**
> *«Errealitatera alde ezberdinetatik hurbildu nahi izan dugu»*

Hamairu kantetatik hamabi letradunak dira. Ezohikoak dira hitzok, «Kanta bakoitza kontakizun bat da, ipuin labur bat, eta guztiak *zero* ideiaren ingurukoak», azaldu zuen Josuk. Bere esanetan, «bizitzan agertzen diren hutsune existentzialak, beldurrak, kanta bakoitzean ikuspegi ezberdin batetik kontatuak daude».

Kirmen Uribek esan zuenez, «disko honetako kanten hitzak aurreko lanetakoak baino zuzenagoak dira, entzun eta segituan ulertzen dira. Lehen, irudien inguruko hitzak baziren, oraingoan narratiboagoak dira, hizkera argiagoa dute eta erreferentzia literario ugari ezkutatzen dituzte».

### Hainbat ahots

Kanton hitzetan ahots ezberdinak daude, pertsonaia diferenteen kontakizunak. «Rock edo popean asko agertzen da *ni*-a, eta aldatu nahi genuen, errealitatera alde ezberdinetatik hurbildu», adierazi zuen idazleak. Ildo horretan, gerratik datorren soldaduaren, kartzelan 20 urte eman ondoren kaleratutako preso ohiaren, edota heroinazalea den neskaren ahotsak jasotzen dituzte kantek, besteak beste.

Txomin Uribe kantariak azaldu zuenez, «diskoa ia gordina» da, ez baitiote efektu gehiegirik gehitu. Urdulizko Tio Pete estudio berrietan grabatu du Piztiak taldeak laugarren diskoa. Aurreko lanak baino «errazagoa» dela dio Txominek. Ildo horretan, hilabete bitan grabatu izanak freskotasuna erantsi diola uste du.



XOUSE SIMAL

**Josu eta Txomin, Piztiak taldeko kideak, atzo Bilbon.**

I G KI ME KE K 33 222
31 x 33 mm
31 x 33 mm
CEM ESTETI ET ILE INTZE